



### Cruz Roja Española

www.cruzroja.es  
91 335 43 27  
jsm@cruzroja.es



### Fundación CEPAIM

www.cepaim.org  
91 548 31 63  
redantenas@cepaim.org



### Fundación Secretariado Gitano

www.gitanos.org  
91 422 09 60  
igualdaddetrato@gitanos.org



Movimiento contra la Intolerancia

### Movimiento contra la Intolerancia

www.movimientocontralaintolerancia.com  
91 530 71 99  
intolerancia@terra.es



### Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad

www.mpd.org  
91 786 64 97 - 91 507 71 68  
igualdaddetrato@mpd.org



### Red Acoge

www.redacoge.org  
91 563 37 79  
redacoge.nodiscriminacion@redacoge.org



### Unión General de Trabajadores

www.ugt.es  
91 589 76 28  
mpino@cec.ugt.org



### Unión Romani

www.unionromani.org  
93 412 77 45 - 93 317 82 91  
u-romani@pangea.org

NIPO: 860-10-005-0

Informazio gehiagorako:  
[www.igualdadyndiscriminacion.org/red\\_oficinas](http://www.igualdadyndiscriminacion.org/red_oficinas)



MINISTERIO DE SANIDAD, POLÍTICA SOCIAL E IGUALDAD



CONSEJO PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE TRABAJO Y NO DISCRIMINACIÓN DE LAS PERSONAS POR EL ORIGEN RACIAL O ÉTNICO

# Diskriminazio Biktimei Laguntzeko Zentro Sarea



CONSEJO PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN DE LAS PERSONAS POR EL ORIGEN RACIAL O ÉTNICO

Aziz eta Nadia Senegalekoak dira eta 10 urte daramatzate Espainian bizitzen.

Valladolidera bizitzera joatea erabaki zuten negozio berri bat irekitzeko eta horretarako lokal bat alokatu behar zuten.

Astebete ondoren, lekurik ezin hobea aurkitu dute, baina alokairuko baldintzak aztertu dituztenean, honako baldintzarekin egin dute topo: "Beltzak ez".



Saray neska ijitoa da eta lan bila dabil dendari gisa, bere autonomia erkidegoan egindako ikastaro bat amaitu ondoren. Elkarrizketa batera joan denean, dendaren arduradunak esan dio enpresa horretan dendariak unibertsitate titulua eduki behar dutela eta, horrenbestez, hautaketa prozesuaren kanpo geratuko dela.



Xyz Diseño, S.L. enpresan, Marta Antonio trebatzeaz arduratzen da; jatorriz Hego Amerikakoa den langile berria; hala ere, hasieratik, Antoniok huts bat egiten duenean, Martak zapuztu egiten du lankideen aurrean eta, hura gertatzen den bakoitzean, esaten dio ez dela inoiz ikasteko gai izango behe mailako arraza batekoa delako.

NOIZBAIT EGOERA HAUEN ANTZEKO BATEAN AURKITU BAZARA, DISKRIMINAZIO BIKITMA IZAN ZARA ZURE ARRAZA EDO ETNIAREN JATORRIA DELA ETA. JAKIN BEHAR DUZU HORI LEGEAK DEBEKATUTAKO JARDUERA BAT DELA.

**ZURE ESKUBIDEAK URRATUZ GERO, ERA ASKOTARA JARDUN DEZAKEZU.** ZALANTZAK BADITUZU, EZ BADAIZU ZER EGIN ETA AHOLKULARITZA BEHAR BADUZU, HARREMANETAN JAR ZAITEZKE *CONSEJO PARA LA PROMOCIÓN DE LA IGUALDAD DE TRATO Y NO DISCRIMINACIÓN DE LAS PERSONAS POR EL ORIGEN RACIAL O ÉTNICO*-KO **DISKRIMINAZIO BIKITIMEI LAGUNTZEKO ZENTRO SAREAREKIN.**

## Zer da Diskriminazio Biktimei Laguntzeko Zentro Sarea?

Arrazaren edo etniaren jatorria dela eta, edozein esparrutan (hezkuntza, osasuna, etxebizitza, enplegua, etab.) diskriminatutako pertsonen laguntza eta aholkularitza independentea eskaintzen dien *Consejo*-ren zerbitzu bat da. **Aholkularitza legalean eta salaketan, bitartekotza eta adiskidetzeari espezializatutako profesionalak aurkituko dituzu.**



## Zein erakundek hartzen du parte gure Sarean eta nola lokalizatu ditzakezu?

Zure eskubideak urratu dituztela uste baduzu, jo dezakezu gure Sarean parte hartzen duten 8 erakundeetatik edozeinetara. **Zure kasua aztertzen eta aukeran dituzun konponbideak identifikatzen lagunduko dizute.** Gomendatzen dizugu zure probintzian aurkitzen den erakundearekin harremanetan jartzea.

- Cruz Roja Española
- Fundación CEPAIM
- Fundación Secretariado Gitano
- Movimiento contra la Intolerancia
- Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad
- Red Acoge
- Unión General de Trabajadores
- Unión Romaní

Informazio gehiagorako:  
[www.igualdadynodiscriminacion.org/red\\_oficinas](http://www.igualdadynodiscriminacion.org/red_oficinas)



## Zer da Consejo-a?

*Ministerio de Sanidad, Política Social e Igualdad*-ri (ez du bere hierarkia egituran parte hartzen) atxikitako elkargoko organo bat da. Estatuko, autonomietako eta tokiko administrazioek, enpresetako eta sindikatuak erakunde adierazgarriek, eta arrazaren edo etniaren jatorriak eragindako diskriminazioaren esparruan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek osatzen dute.

*Consejo*-ren zeregina tratu berdintasunaren eta pertsonak ez diskriminatzearen printzipioa sustatzea da, arrazaren edo etniaren jatorria edozein izanda ere.